

EUSKARAREN ALDE

AZAROAREN 4AN DENOK BILBORA!



Azaroaren 4an euskalgintzak deitutako **MANIFESTAZIOA** egingo da Bilbon, 17:00etan Euskaldunatik abiatuta.

Azkenaldian areagotu egin dira auzitegietatik **euskararen** sustapena eta normalizazioa helburu duten hainbat neurriren **aurkako sententziak**: Uliazpi, Laudio, Barakaldo, Irun, Uharte, Erandio, Berriozar, Aurrabia, Orkoi... Eta epe laburrean espero ditugun beste asko.

Argi dago ez direla sententzia isolatuak, baizik eta botere judizialek hizkuntza politika aurrerakoak mugatzeko eta herritarron hizkuntza eskubideak murrizteko joera gorakorra: **oldarraldi bat**. Izan ere, sententzia guztien elementu komun bat dut: gazteleraren nagusitasuna ezartzea herritarron hizkuntza

eskubideen gainetik, eta beraz, oinarrizko eskubideen kaltetan.

Horregatik, azaroaren 4ko manifestazioa euskalgintzak deitu duen arren, hizkuntza aniztasunean, justizian eta berdintasun sozialean sinesten duten pertsona eta kolektibo guztiei deia egiten diegu oldarraldiaren aurrean euskararekin bat egitera, euskaraz bat izatera.

Tokian toki eta sektorez sektore **manifestazioaren zabalpena egiteko deia** ere egiten dugu azaroaren 4an Bilboko kaleak betetzeko.

Guztion indarra beharko dugu herritar guztion eskubideen aldeko erantzun sendoa emateko.

Denon artean egingo dugu!